



Arartekoaren 2015R-182-15 ebazpena, 2015eko irailaren 18koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Prestazio Osagarria ukatzeko erabakia.

Aurrekariak

2015eko urtarrilaren 22an, XXX andreak sustatutako kexa tramitatzea erabaki zen. Kexaren arrazoia Lanbidek Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako (DBE) eta Etxebizitzako Prestazio Osagarriarako (EPO) eskubidea ukatu izana zen.

Kexagilearen esanetan, 2014ko ekainean, etxean hainbat indarkeria episodio jasan ondoren, DBE eta EPOrako eskubidea aitortzeko eskatu zuen. Horretarako, beharrezko zen dokumentazio guztia aurkeztu zuen.

2014ko abenduaren 21ean, Lanbidek eskubide hori aitortzeko eskaera ukatzea erabaki zuen. Ukapen horren oinarria zen, hain zuzen ere, Bilboko Udaltzaingoko Herritarren Segurtasun Sailak igorritako bizikidetza txostena. Bertan adierazitakoaren arabera, izan ere, eskatzailea adinez gabekoak ziren bere bi seme-alabekin eta horien aitarekin bizi zen, azken horrek familia inguruko etxeo indarkeriaren zioz urruntze agindua izan arren.

Egoera larri horren ondorioz, beraz, 2015eko urtarrilaren 30ean premiazko informazio eskaera bat gauzatu zuen erakunde honek. Era berean, hainbat harreman izan genituen Lanbideko arduradunekin.

Era berean, Bilboko Udaltzaingoko Herritarren Segurtasun Sailak igorritako bizikidetza txostenaren edukia ere ezagutu nahi izan genuen, berau izan baitzen Lanbidek prestazioak ukatzeko erabili zuen argudio bakarra. Hori dela eta, martxoaren 19an beste espediente bat ireki zen eta Bilboko Udalari informazioa eskatu zitzaion, bizikidetza txostenaren eta haren edukiaren berri eman ziezagun.

Martxoaren 5ean, kexagilearen beharrizan larria ikusita, Lanbideri idatzi bat igorri genion eta hainbat gogoeta helarazi genizkion.

Azkenik, ekainaren 16an, erakunde honen erregistroan Lanbideren idatzi bat jaso genuen eta, bertan, kexagileari DBE eta EPOrako eskubidea ukatzeko erabakiarekin





jarraitzen zela adierazi ziguten. Lanbidek erabilitako argudioa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren abenduaren 28ko 991/2012 epaia izan zen, bertan baietsi egin baitzen kexagileak jarritako demanda eta indargabetu egin baitzen prestazioak oker jaso izana aitortzen zuen ebazpena. Lanbidek defendatutakoaren aurka, epai hori gure posizioa defendatzeko oinarri juridiko gisa aztertuko dugu gure gogoetetan.

Ondoren, kontuan hartuta egitate eta zuzenbideko elementuak direla, honako gogoetak egin dira:

Gogoetak

1. Hizpide dugun kasu honetan, elementu erabakigarri bat dago: kexagilea etxeke indarkeriaren biktima izan da. Hala, espedientean ageri den dokumentazioaren arabera, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Bilboko 1. Auzitegiaren 2014ko ekainaren 18ko epaian, kexagilearen bikotekide ohia ageri da honakoaren egile erantzule gisa:

- *“Un delito de LESIONES EN EL ÁMBITO FAMILIAR previsto y penado en el artículo 151.1º y 3º del Código Penal en relación con los artículos 57.2 y 48.2 del mismo cuerpo penal a la pena de 40 días de trabajos en beneficio de la comunidad, privación del derecho a la tenencia y porte de armas por tiempo de 16 meses, accesoria de prohibición de acercarse a XXX a su domicilio y a cualquier lugar donde se encuentre a una distancia inferior a 200 metros por tiempo de 4 meses.”*

Ezarri zitzaion zigorraren ondorioz, kexagileari biktima babestuaren txartela igorri zitzaion, eta, bertan, gorago adierazi dugun bezala, YYri debekatu egin zitzaion kexagilearengana, haren helbidera edo bera egon zitekeen edozein lekura hurbiltzea, 200 metrotik beherako distantzian, 4 hilabetez (2014/06/18tik 2014/10/15era).

2. Ahulezia bereziko egoera honetan, bada, kexagileak DBE eta EPOrako eskubidea aitortzeko eskaria aurkeztu zuen bere Lanbide bulegoan. Zehazki, Biloko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritartasun Arloa da, kexagileak eskatuta, 2015eko urtarrilaren 19an txostena egin zuena eta 2001az geroztik oinarritzko gizarte zerbitzuetan egindako esku hartze desberdinen berri eman zuena.





Hala ere, 2014ko abenduaren 21ean, eskaria aurkeztu zenetik emandako bi hilabeteko epea igaro ondoren, abenduaren 23ko 18/2008 Legeko 62.2 artikuluan jasotakoaren eta azaroaren 24ko 4/2011 Legean aldatutakoaren arabera, Lanbidek eskubidearen aitortza ukatzea erabaki zuen. Lanbidek azaldu zuen eta ukapenaren atzean dagoen arrazoia honako hau da:

- *"Egoera sozio-ekonomiko, familiar, laboral eta abarrei buzuruzko datuak ezkutatzea,*
- *Bizikidetzaren unitatearen osaketari buruzko datuak ezkutatzea."*

Ukatzeko ebazpenarekin ados ez zegoenez, kexagileak gora jotzeko errekurtsua jarri zuen eta, bertan, Lanbidek egindako baieztapenarekin ados ez zegoela adierazi zuen. Halaber, berriz ere aurkeztu zuen dokumentazioa, bere egoera egiztatu ahal izateko.

3. Hasierako informazio eskaerari erantzunez, Lanbidek berriz ere adierazi zuen eskubidearen aitortza ukatzeko arrazoia Bilboko Udaleko Herritarren Segurtasun Sailak 2014ko abenduaren 4an igorritako bizikidetzaren txostena zela. Hori dela eta, beharrezkoa iruditu zitzaigun kexa berri bat irekitzea, txosten horren edukia aztertzeko asmoz. Azkenik, Bilboko Udalari gaiaren gaineko informazioa eskatu genion.

Bilboko Udaltzaingoko Herritarren Segurtasun Sailak Lanbidek eskatuta 2014ko abenduaren 4an egindako bizikidetzaren txostenak honako hau zioen:

- *"En relación a su solicitud de comprobación de convivencia, agentes de esta Policía Municipal, una vez realizadas las gestiones correspondientes han averiguado que en el domicilio sito en Bilbao, calle zzz nº 16, residen las siguientes personas:*

XXX

YYY (consta empadronado en C/ zzz, nº 14)

AAA (hijo de XXX y YYY)

BBB (" " " ")

El citado YYY, lleva residiendo en este domicilio cuatro meses aproximadamente."





Era berean, gure erakundean martxoaren 25ean sartu zen idazkiaren bidez, Bilboko Udalak honako hau adierazi zuen:

- *“La aseveración que se contiene en el mismo (en referencia al informe de convivencia) que ha deparado perjuicios a la persona que formula la queja , referente a D. YYY residía en la vivienda nº 16 de la c/ zzz desde aproximadamente 4 meses antes de la fecha del informe, puede parecer una estimación subjetiva, pero ello no es así por cuanto tal dato se ha verificado por los agentes actuantes mediante su consulta a los vecinos de ambas residencias, fuente de información que entendemos del todo válida. Comprenderá Ud. que la identificación de los mismos no resulta oportuna por razones que nos parecen obvias.”*

4. Kasu honetan, ez gaude ados Lanbidek eta Bilboko Udalak egin dituzten gogoetekin.

Berriz ere errepikatzen dugu hainbat informazio eskaeratan eta gogoeta idatzietan adierazi dugun posizioa: Bizikidetzaren egiazteko txostenak ez du adierazten zertan oinarritu diren funtzionario publikoak, YYY etxebizitza horretan bizi dela baieztatzeko.

Berriz ere azpimarratu behar dugu txostenean agertzen den *“aproximadamente”* erreferentziak kasu honetan zalantza sendoak sortzen dituela txostenari baliagarritasuna emateko orduan.

Horren harira, Auzitegi Gorenaren doktrinak behin eta berriz adierazi du ikuspen aktak egiazkoak direla ulertzeko, jarduten ari den ikuskariari printzipioz inpartzialtasuna eta espezialitatea aitortu behar zaizkiola. Era berean, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian egiazko izaera hori ematen zaie, soilik, beren objektibotasunaren zioz ikuskariak zuzenean antzeman ahal dituen gertaerei, gertaeren ondorioz berehala ondorioztatu ahal diren gertaerei, edo aktan atxikitako frogen bidez egiaztatu direnei, hau da, agiri edo aitorten bidez (besteak beste) frogatu direnei.

Kontuan hartu behar da prestazioak itzultzeko erabaki dezakeen, edo, kasu honetan, kexagileari eskubide bat aitortzea ukatzen duen prozedura administrazio batean frogatzea gisa balioko duen txostena egiten duen funtzionarioa kasuan kasuko gaietan jantzia izan behar dela. Gainera, txosten





hori egiteko modua oso garrantzitsua da, txostena legez baliagarria izan dadin.

Jakina da txostena legezkatzat eta egiazkatzat jotzen dela funtzionario publiko batek egin duelako. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 137.3 artikulua zera ezartzen du: *'Agintaritza aitortzen zaien funtzionarioek egitatei emandako sinestamenduek, legez behar diren betekizunak dituen agiri publikoan jasotzen badira, froga-balioa izango dute; baina herritarrek ere beti adierazi edo aurkez ditzakete frogak, beren eskubideak edo interesak aldezteko'.*

Era berean, araudi bereko 46.4 artikulua honako hau ezartzen du: *'Administrazio-agiri publikotzat joko dira herri-administrazioetako organoek balioz emandako agiriak'.*

Izaera hori izan dezan, edonola ere, eskatzen diren formaltasunak bete behar ditu.

Administrazio agiri publikoa izanik, kasuan kasuko gertaera, egintza edo egoera, dokumentazio hori egiteko data eta fede-emaielen eta kasuan esku hartzen duten gainerako pertsonen nortasuna guztiz frogatzen direla ulertzen da (Prozedura Zibilar buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeko 319.1 artikulua).

Administrazio publikoaren esku dauden datuak islatzen dituzten agiriak ematen dira guztiz frogatutzat. Aitzitik, txostenean egon daitezkeen interpretazioak edo balio judizioak ez dira guztiz frogatutzat jotzen. Jurisprudentiaren arabera, agiri publikoek horien data eta egileak egiaztatzen dituzte, baina ez dute bertan jasotako aitorten nahitaez egiazkoak direla ziurtatzen. Azken horiek, izan ere, beste froga bitarteko batzuen bidez hutsaldu daitezke.

Ondorioz, auzitegiek arrazoi bidez azaldu behar dute zergatik jotzen dituzten gertaerak frogatutzat eta zein froga dituzten.

Hau da, txostenak funtzionarioak *"in situ"* egiztatu dituen gertaera objektiboak froga ditzake. Bada, eraginkortasun hori halako izaera ez duten





gertaeretara hedatzen bada, egileari egiazkotasun hori zein elementu edo frogatan oinarritzen duen azaltzeko eska dakioko.

Horren harira, txostenean hainbat pertsonaren artean dagoen harremana aipatzen bada, harreman hori *"in situ"* egiaztatu ezin duenez, funtzionarioak baieztapen hori zein elementu edo frogatan oinarrituta egin duen azaldu beharko du.

Ondorioz, bereizi egin behar dira beren objektibotasunagatik funtzionarioak zuzenean antzeman ditzakeen gertaerak, gertaera horien zioz berehala ondorioztatzen direnetatik edo txostenean atxikitako froga bitartekoen bidez egiaztatu diren gertaerak. Hau da, ezin da pentsatu txostenean ageri den guztia egiazkoa denik funtzionario publiko batek adierazi duelako.

5. Horren harira, Administrazioaren froga eskakizunari dagokionez, Gaztela-Mantxako Justizia Auzitegi Gorenaren apirilaren 15eko 132/2013 epaiak honakoa ondorioztatzen du:

- *"ausencia sería, por sí solo, un argumento de suficiente peso en orden a la anulación de la resolución administrativa"*

Hori dela eta, honakoa azpimarratu du:

- *"la actuación de oficio por el Ayuntamiento, con las importantes consecuencias que ello comporta, debió basarse en una actividad probatoria que no consistiese exclusivamente en las visitas realizadas a los domicilios de los demandantes por un concejal del Ayuntamiento."*

Beraz, administrazio publikoaren froga jardueretan zehaztasun nahikoa eska daiteke, kexagileak bere argudio guztiak eman ditzan jarduera horren aurrean.

6. Lanbidek, udaltzaingoaren txostenari baliagarritasuna ematearen aldeko bere posizioa argudiatzeko babes gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenaren abenduaren 28ko 911/2012 epaia aipatu du. Zehazki, erakunde honetan ekainaren 16an sartu zen idazkian, Lanbidek honakoa adierazi du:





- *"Euskal Autnonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. Atala) emandak epaian (991/2012 epaia, 2012ko abenduaren 28koa) adierazten den bezala, ZUZENBIDE OINARRIAN hau esaten da: "Udaltzaingoaren txostenak egiaztatzen du errekurtsua jarri duena YYY jaunarekin bizi zela jarduketa hori egin zen egunean eta bikote-harremana dagoela haien artean; 2001. Urteaz geroztik, gutxienez.*
- *Ikus daitekeen bezala, auzitegiak "2001. Urteaz geroztik, gutxienez" adierazpidea onartu zuen, bizikidetzaldia guztiz zehazteko inolako eskakizunik gabe, jaun txit prestu horrek, etxebizitza bateko elkarbizitza egiaztatzeko, egin behar dela dioen bezala."*

Paradoxikoki, Lanbidek aipatu duen epaian Udaltzaingoaren txostena ez da froga aski sendotzat jotzen, bizikidetzaren unitate bat osatu dela egiaztatzeko, prestazio ekonomikoetan ondorioak izanik. Horren harira, zuzenbideko bigarren oinarriak honakoa dio:

- *"El informe de la Policía Municipal constata la convivencia de la recurrente con D. YYY en la fecha de esa actuación y la existencia de una relación de pareja entre ambos desde, al menos, 2001.*

Esos datos, sin mejor precisión e información de sus fuentes no son por sí solos suficientes para dar por acreditada la convivencia de ambas personas en el mismo domicilio durante el periodo o parte del periodo a que se extiende la acción de reintegro.
(...)

Y el informe municipal no deja constancia más que de la convivencia de ambos en una o con relación a una determinada fecha, esto es, una prueba meramente indiciaria del hecho en cuestión.

Tampoco se han puesto de manifestación circunstancias personales, familiares, laborales o de otra índole que nos lleven a determinar con certeza el carácter y alcance de la relación entre el recurrente y el mencionado durante el periodo en que puede sospecharse o más que conjeturarse una especie de convivencia "more uxorio"





(...)

En definitiva, no se ha acreditado con certeza la integración de D. YYY en la unidad de convivencia de la recurrente."

Esto mismo viene a reconocerse también en la sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco 64/2014, de 14 de febrero, cuando en su Fundamento de Derecho segundo que determina que:

- *"El art. 137 de la Ley 30-1992 en que se ampara la demandada para dotar de valor probatorio iuris tantum al informe policial impone para ello varias condiciones, una de ellas, esencial, cual es que se trate de hechos constatados por los funcionarios de que se trate. Es así que el informe no describe tal situación sino que lo que describe son las conclusiones inferidas de unas actuaciones previas que se omiten pues aparecen descritas por una frase genérica, ambigua, imprecisa y que desde luego no describe hecho concreto alguno del que puedan deducirse razonablemente aquellas conclusiones. El informe se limita a expresar que se han practicado las "comprobaciones correspondientes". Se debería haber descrito cuáles han sido éstas y el resultado que cada una de ellas ha ofrecido para poder así verificar si puede o no deducirse la conclusión última. Tal ausencia de hechos objetivos constatados por los funcionarios impide dotar al informe de valor alguno."*

7. Hau da, azken finean, Bilboko Udalak ez zuen ahalegin handirik egin bizikidetza benetakoa zela egiaztatzeko, edo bere errolda erregistroen errealitatea bizikidetza txostenen edukira egokitzeke, eta, era berean, Lanbidek ez zituen espedientean ageri ziren beste froga bitarteko batzuk kontuan hartu, esate baterako, errolda ziurtagiriak, urruntze agindua, edo Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzeta eta Herritartasun Arloak igorritako gizarte txostena.

Halaber, bere bikotekide ohiarekin bizi zela baieztatzen zuten auzokideen aitoren aurrean, kexagileak ezin izan zuten defentsa bitarteko sendorik egin, txostenean ez baitzen inolako izenik eman. Ondorioz, ezin da jakin harreman pertsonalen edo bestelako egoeren ondorioz kexagileari ezinikusia dion edo etsaitasunik ote dagoen, edo, azken batean, aitortutakoaren egiazkotasuna zalantzan jartzeko arrazoirik ba ote dagoen.





Horrenbestez, adierazi den bezala, "*iuris tantum*" presuntzioa zuzenean antzemandako gertaeren gainean ulertzen da, baina berau ez da hedatzen ondorio, balio judizio edo inferentzietara, horiek beste froga elementu batzuetan oinarritu beharko baitira egiazkotzat jo ahal izateko.

Hala bada, igorritako bizikidetzat txostenetik ezin da sendoki ondorioztatu kexagilea erasogilearekin bizi zenik lau hilabete "inguruko" epean, gogoratuko dugun bezala urruntze agindua oraindik ere indarrean zegoenean.

Hori guztia dela eta, Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetzat eta Herritartasun Arloak igorritako gizarte txostena (2011. urteaz geroztik egondako tratu txarren berri ematen duena) eta erasotzailea beste helbide desberdin batean erroldatu izana gure ustez froga elementu nahikoak dira bizikidetzat txostenari eman zaion "*iuris tantum*" presuntzioa hutsaltzeko.

8. Azkenik, gogoratu prestazio eskaria aurkeztu zuen emakumeak bi seme-alaba dituela bere kargura eta genero indarkeriaren biktima dela. Zehazki, eskaria 2014ko ekainean egin zuen, bere bikotekide ohia kondenatzen zuen epaia emanda zegoenean, eta, hala ere, espedientean ez da ageri Lanbideren ebazpenik 2014ko abendura arte.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 euskal Legeko 58. artikulua araberatuz, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeek oinarritzko errenta jasotzeko eskubidea dute (gaur egun, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta izeneko prestazio ekonomikoa da horren ordezkoa). Egiaztatu denez, Lanbidek berandu izapidetu zuen eskaria eta prestazioa ukatu zion, prestazioak eskatu zituenetik bi hilabete igaro ziren arren (Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeko 62.2 artikulua). Era berean, Lanbidek ez zion kasu berezirik egin interesduna genero indarkeriaren biktima izateari, horrek bere eta bere seme-alaben egoera bereziki ahula justifikatzen duen arren.

Arartekoaren iritziz, Lanbidek, prestazioak ukatzean, ez zuen behar bezala kontuan hartu bere karguan seme-alabak zituenik (Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 gomendio orokorra). Politika publikoetan, eta, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman adingabeen interes gorena kontuan hartu beharrak, batetik, eta genero indarkeriaren biktima izan den emakume bat dela egiaztatzen duen dokumentazioa, emakumea eta bere bikotekide ohia





helbide desberdinetan bizi zirela egiaztatzen duten errolda ziurtagiriak edo Bilboko Udaleko eta CEAR bezalako gizarte erakundeen gizarte txostena (emakumea babesten duena) aintzat hartu ez izanak, bestetik, kexagilea babesik gabe utzi ahal izan dute.

Egoera horretan, prestazio ekonomikoetarako eskubidea ebazteko berandutu izanak eta prestazioen ukapenaren atzean dagoen arrazoiketa eskasak edukirik gabe utzi ahal dituzte genero indarkeriaren biktima diren emakumeak babestu eta zaintzeko legezko neurriak. Lanbidek, hutsune horien aurrean, ezin du baztertu genero indarkeriaren biktima diren emakumeenganako duen nahitaezko erantzukizun publikoa.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Lanbidek berriz ere azter dezala DBE eta EPOren aitortza ukatzeko erabakia, Bilboko Udaltzaingoko Herritarren Segurtasun Sailak igorritako bizikidetzaren txostenaren bidez ez baita nahikoa egiaztatu kexagilea eta bere bikotekide ohia benetan elkarrekin bizi zirenik. Ondorioz, bi prestazioak aitortzea gomendatzen dugu.

